

## PRENTSA OHARRA



# BIZKAIKO PERTSONA EZAGUNEN GALERIA: PERTSONA HERRIKOIAK

**Zazpi Kaleetako Bilbo, Botxoa, XIX. mendeko azken urteetako ea XX. mendeko lehen erdialdeko pertsona pintoreskoen bitartez ikusia.**

Ekitaldia	“Bizkaitar Entzutetsuen Galeria: Pertsonaia Herrikoiak” erakusketaren aurkezpena
Eguna	Osteguna, abenduak 13
Lekua	Euskal Museoa, Miguel de Unamuno plaza 4
Ordua	10:30
Aurkezlea	Josune Ariztondo Akarregi, Kulturako diputatua eta Euskal Museoaren Patronatuko Batzordearen presidentea Iñaki López de Agileta, Bilboko Udaleko Kultura zuzendaria Amaia Basterretxea, Euskal Museoaren zuzendaria

Bilboko Euskal Museoa atsegin handiz aurkezten du “Bizkaitar Entzutetsuen Galeria: Pertsonaia Herrikoiak” erakusketa. Bertan, Hiribilduko eguneroko bizitzan presentzia publikoa izan zuten gizon eta emakumeei buruz oloz egindako erretratuen aukeraketa bat biltzen da. Aipatutako galeria Bilboko Udalaren jabetzakoa da, eta, 1995etik, Museoan dago, gordailuan utzita. José Antonio eta Luis Lerchundi y Sirotych anaien proiektu pertsonal gisa sortu zen, 1950. urtearen inguruan.

Jatorriz, Bilduma 239 koadroz zegoen osatuta; lanotan, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako jardueraren eta eguneroko bizitzaren hainbat arlo ikus daitezke, Bizkaitik eta, bereziki, Bilbotik kalez kale ibiltzen ziren pertsona hauen bitartez.

Erretratuen kopurua handia denez, Museoak zenbait multzotan erakustea erabaki du, eta hauxe da lehenengoa, kalekume eta pertsona herrikoiei eskainitakoa. Ez ziren pertsona izugarri ospetsuak ez bereziki garrantzitsuak, ezpada sinpatikoak, atseginak, azeriak... 2013. urtearen amaieran, bigarren erakusketa eskainiko dugu, kulturako munduko pertsoneri eskainitakoa: margolariak, musikariak, idazleak, kirolariak...

Lehenengo erakusketa hau 45 lanez dago osatuta (multzoa 50 lanez osatzen zuten), eta, modu horretan, hainbat pertsonaren bizitzetan sartuko gara: **La Sañuda**, garaia eta sendoa, langileburua zena bakailao-ontziak deskargatzeko lanean; **Jose Luis Pitarque**, maisua lanik egin gabe bizitzearen artean; **Felix Unamuno**, idazlearen anaia eta bere farmaziara heltzen ziren errezetak zuzentzen zituen, uste zuelako medikuak ezgauza zirela; **Jaime Selvy**, jatorri ingeleseko ingeniaria, Astilleros del Nervión enpresak kontratatuta etorri eta bilbotar bat gehiago izatera heldu zena; edo **Pachote**, gizon handia eta oso ezaguna jendearen artean, Bilboko Koral Elkartearen bandera eramaten zuelako orfeoiko kideek Hiribilduan egiten zituzten desfileetan... Horiei denei esker, bilbotarren espiritua eta ezaugarriak osatuz joan diren bereizgarrietako batzuk ezagutu ahal izango ditugu.

Ahaleginak egin arren, ezin izan da pertsona horietako batzuen zirriborro biografikorik egin; beraz, Museoak zinez eskertuko luke beraiei buruzko edozein informazio osagarri, bai eta atal hau osatzeko falta diren bost lanak non dauden jakiten lagunduko digun edozein datu ere: Lorito, Jodra, Begoñako Santua, Ochandiano “Chimbo” eta Santiaguito dira falta diren bost pertsonak, hain justu.

#### ERAKUSKETAREN FITXA

Izenburua: Bizkaiko pertsona ezagunen galeria: pertsona herrikoiak

Antolatzailea: Euskal Museoa. Bilbao. Museo Vasco

Datak: 2012-12-13 / 2013-02-24

Lan kopurua: 45

Argitalpenak: Katalogo digitala (pdf) pertsonaien irudiekin eta biografiekin, euskaraz eta gaztelaniaz.

Jarduera paraleloak: 30'-ko bisita gidatuak

#### BISITARIENTZAKO INFORMAZIOA

Ordutegia: asteartetik larunbatera, 11:00etatik 17:00etara. Igandeetan, 11:00etatik 14:00etara.

Astelehenetan, itxita

Sarrera orokorra: 3 €

Sarrera murriztua: 1,5 € (ikasleak)

Doako sarrera: 12 urtetik beherakoak eta jubilatuak.

Tel.: 94.4155423